1996ko abuztuak 22 / 162. zkia.

Astekaria

# BARREN

elgoi







MAPFRE

ASEGURU ETXEA

*Jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!*

San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR


Elgoibarko EAJ-PNVren izenean
**JAI ZORIONTSUAK**
opa dizkizuegu elgoibartar guztioi.
EAJ
PNV

# ZELETA

## Barazkiak

*Gora San Bartolome!*

JATORRIZKO KALITATEA

EUSKAL BASERRI

KALITATEA

GERNIKAKO PIPERRA



**Egunero batu eta ontziratzen dugu.**

**Erabateko kontrola produkzio eta hautaketan.**

**Tratamendua 0,0.**

**BETIKO DENDETAN AURKITUKO GAITUZU.**

ZELETA BASERRIA - *San Migel Auzoa* - ELGOIBAR

PNEUMAX

# PNEUMAX, S.A.

Olaso Kalea, 15. Tel.: 74 41 44 - 74 41 74. Fax: 74 40 76 **ELGOIBAR**
309 postakutxa - 20.600 **EIBAR**

## AUTOMATIZAZIO NEUMATIKARAKO OSAGAIAK





**EDOZEIN ARAZORI AURRE EGINGO DIOTEN ELEMENTU NEUMATIKOAK**

# ELGOIBARKO UDALAK
# SAN BARTOLOME
# JAI ZORIONTSUAK
# OPA DIZKIZUE
# ELGOIBARTAR GUZTIOI!




**ELGOIBARKO UDALA**




# TAXIA behar baduzu, deitu

*Ondo pasa jaiak!!*

**GELTOKIA** ☎ 74 08 98



**Sabin Beristain** ☎ (907) 44 55 66



**Jose Luis Bollar** ☎ (908) 57 04 65

sake
KOPERATIBAK

# ELGOIBARKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

San Frantzisko 24 • ELGOIBAR • Tel: 74 07 62

*INEKO nekazari kooperatibak* ***San Bartolome jai zoriontsuak*** *opa dizkizue elgoibartarrei*




**USTE BAINO GEHIAGO AURKITUKO DUZU GURE DENDAN:**

- **Etxeko animalia txikien janari eta osagaiak**
- **Ureztatze gaiak**
- **Ongarriak, pentsuak, haziak, e.a....**

# INTERIORES

Errosario, 15 behea. ELGOIBAR
TEL: 74 40 55 - 74 40 19

**Etxeak goitik behera jazten ditugu**

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza
Sukaldeak
Opariak

*Jai zoriontsuak herritar guztiei!*








Dori
URDAITEGIA
Aparteko produktuak
Errosario, 29
Tel. 74 11 92
ELGOIBAR
Jai Zorintsuak!


PATXI
HARATEGIA
KALITATEKO
EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL
Jai zoriontsuak elgoibartar guztiai!!
San Bartolome, 30
Tel. 74 35 04
ELGOIBAR


Zure oporretako argazkiak kalitaterik onenean
- Argazki erretokea scanner bidez
- Karneterako argazkiak
- Ezkontza erreportaiak bideo digitalez
ostarku
Karrete bat errebelatzeagatik ALBUM BAT eta 24 argazkitako KARRETE BAT oparituko dizugu
Santa Ana, 5 - ELGOIBAR - (943) 74 06 46


Gorbea JATETXEA
Enkargatu kuadrilako bazkaria.
Jangelan edo ate parean kuadrilako bazkaria ospatzeko giro aproposa.
Aupa San Bartolome!!
Santa Ana, 10 - Tel. 74 05 80
ELGOIBAR



# BERISTAIN

## EDARI BANATZAILEA

**Iñaki ☎ 74 38 27**

*Ondo pasa San Bartolomeak!*

*Vina Nerea,*
*txikiteorako zure*



AGUAS
ALZOLA
URAK

KELER
18
DE LUXE BEER

Coca-Cola
Coke

RAM

BODEGAS & BEBIDAS

VERJA

OKEY
cacao



**astondoa, s.a.**
piroteknia

*Gure suek*
*San Bartolome*
*jaiak*
*piztu ditzatela!*

Tfnoa: (94) 673 90 16
Faxa: (94) 631 71 40
48143 AREATZA-VILLARO
**BIZKAIA**

**EIBAR**
OSASUNDEGIA

*Urkizu pasealekua, 11.*
*(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).*
*Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*
*EIBAR*

1- Alergologia
2- Kardiologia
3- Zirugia
4- Dermatologia
5- Dietetika eta Nutrizioa
6- Foniatria
7- Ginekologia
8- Laborategia
9- Barne medizina
10- Ortodontzia
11- Otorrinolaringologia
12- Pediatria
13- Psikiatria
14- Radiologia
15- Traumatologia
16- Urologia

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.
MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.
ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.700 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

**elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

kutxa fundazioa
fundación kutxa





# Bartolome Deunaren jaiak direla eta

Inguruko herrietako jaiak pasa ondoren (Eibar, Mutriku, Azpeitia, Deba,...) azkenean heldu zaizkigu guk hainbeste maite ditugunak eta urte osoan zehar itxaron ditugunak; Bartolome Deunaren festak, hain zuzen ere.

Jaietan, herritik kanpo bizi diren elgoibartarrak herriratzen dira, baita udaldia kanpoan pasa dutenak ere, eta ez dugu ahaztu behar jai hauek oporren bukaera adierazten dutela zeren eta gero, jaiak pasatu ostean, nork bere lanari ekin beharko baitio. Beraz, festak ahalbait ongien pasatzen saiatzeko badagoela hainbat eta hainbat arrazoi esan daiteke.

Bartolome Deunaren jaietako egitarauari dagokionez, guztiok dakigun bezala, oso zaila da (edo ezinezkoa) denon gustua egitea eta batzuek hainbat ekintza faltan botako badituzte ere, edo egitarauan dauden beste zenbait ekintzari soberan iritzi, pentsatu behar dugu aurten ere, aurreko urteetan bezala, Udala ahalik eta jende gehienaren gustu edo zaletasunetara hurbiltzen saiatu dela. Eta gauzak horrela izaki, aurtengo jaiek eskainitakoez gozatu beharko genukeela uste dut.

Bestalde, ez nituzke zenbait arrazoirengatik jai hauetan gure artean izango ez direnak ahazterik nahi; hau da, hildakoak, gartzelan daudenak...

Bigarren hauei erreferentzia eginez, zera esan nahi nuke: herritar hauek gogoan izateko ez da beharrezkoa istiluak sortzea edo indarkeria erabiltzea, zeren eta azken finean, honen guztiaren ondorioak jasango ditugunok herritarrok baino ez baikara izango, eta ez dut uste horrelakorik inori komeni zaionik; aurreko urteetan gertatutakoen eskarmentua badugu eta ez dut uste inoren onerako denik.

Ea, ba, Bartolome Deunaren jaiak jai-giroan eta alaitasunean igarotzen ditugun, eta indarkeria eta istiluak alde batera uzten ditugun haserre eta gorrotoak bezalaxe; Elgoibarrek festa baketsuak merezi ditu eta.

Gora Bartolome Deuna!

**Alberto Iriondo**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

ELGOIBAR 650. URTEURRENA

Maser

Ibaitarte kalea 3 - 167 Postakutxa
Tel. (943) 74 26 69 - 74 44 38 - FAXA (943) 74 30 77
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



- ELETRONIKA INDUSTRIALA
- INFORMATIKA INDUSTRIALA
- PROZESUEN AUTOMATIZAZIOA
- INJINERUTZA ETA FABRIKAZIOA

**MASERek San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue elgoibartar guztioi. ONDO PASA JAIAK!**

BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA

# REZOLA GASOLINDEGIA

*Ondo pasa San Bartolome jaiak!*




**ZERBITZU BERRITUAK**

Presiozko garbiketa
Garbiketa neumatikoa
Aspiragailua

**HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK**



# JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

**Edari Banatzailea**

GURELESA

SANTA ANA 41. ☎ **74 10 41 - 74 11 32**

Elgoibarko EUSKO ALKARTASUNAK San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue elgoibartarroi.





Erretratu zahar hau San Bartolome jaietakoa da. 1947ko jaietan ateratakoa hain zuzen ere, Manolete toreroa hil zen urtekoa. Erretratua **Pepita Astigarragak** laga digu eta berak esan digunez, Plaza Txikian daude hiru emakumezkoak. Pepitaren hitzetan, "sasoi hartan zezenketak eoten zian Plaza Txikixan eta aurrez 'Manola' jantzitxa ibiltzen ginan kalietan zihar gero zezenak ikustera juteko".

Ikus dezagun zein diren manola jantzita azaltzen zaizkigun hiru emakumezkoak:

Ezkerretik hasita: **Pepita Astigarraga, Maribi Zubiaurre** eta **Ana Garbizu** (pasaitarra).

MANCISIDOR HERMANOS, C.B.
Mekanizatuak
Mandrinatuak

Planu bidezko piezen fabrikazioa
eta mekanizazioa orokorrean.



☎ 74 30 55
FAX: 74 37 77
ELGOIBAR

karkizano
*San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49*

Arrieta
San Bartolome 18
☎ 74 08 49




# SAN BARTOLOME JAIETAN ALAITASUNA ETA ANAITASUNA



Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

## ESOZIA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.*

*Zugandik oso gertu!*




## Zazpi

*Ondo pasa jaiak!*

Errosario, 31 - Tel. 74 25 19 - ELGOIBAR

- Ogitartekoak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak





# Zenbat gaupasa egiteko asmoa?



## GARIKOITZ DE PRADO

**17 urte**

Hiru gaupasa eta hala ere gutxi dira, gehiago egingo nituzke. Bazkal ostean sartzen naiz ohean deskantsatzeko. Jaiak gauez bizi ditut.



## VANESA GARCIA

**15 urte**

Gaupasarik ez digute uzten, asko jota gaueko 3ak arte ibiltzen naiz kalean. Baimena izango banu ere ez dakit aguantatu nukeen. Dena dela badaukat probatzeko gogoa.



## AITOR CID

**15 urte**

Hiru edo lau, goizeko 10ak arte, zezenera arte, gehixo ez ze gorputza nekatu egiten da eta ezin duzu eguna aprobetxatu. Dirua dauanean juerga, ez badago normal ibili.



## BENAT BILBAO

**21 urte**

Egunero ez, baina Bizperian, eta Txiki eguneko aurrekuan... Oin Txarangan zela naon leheno erretirau bihar naiz baina bi juerga fuerte eta sokamuturrakin erretiratzia behintzat....



## NURIA BERGUA

**27 urte**

Lehen oin baino gehixo, ilusiua eitxen zaban gaupasa eitxiak, batez ere Gaztien eguna izaten zan fuertia. Oin nahiz eta gogua euki gorputzak ez ditx aguantatzen.



## NURIA PEREZ

**15 urte**

Ez didate lagatzen gaupasarik egiten. Hala ere, ez daukat gaupasa egiteko irrika handirik. Bestela ere ondo pasatzen ditut jaiak nahiz eta gau osoko juergarik ez egin.

OASIS
Jai zoriontsuak pasa!
San Bartolome, 28 behea - ELGOIBAR - Tel. 74 35 02
OPARIAK
ARTISAUTZA
GAZTEENTZAKO ERROPA

IRAILAREN 15era ARTE ESKAINTZA BEREZIAK
TIEN 21
BIRE ELEKTRAGAILUAK
Ubitarte 3 - Tel. 74 14 87 - ELGOIBAR

Erretratu hau San Bartolome jaietakoa da. 1932an San Bartolome egunean ateratakoa hain zuzen ere. **Begoña Latxak** ekarri digu eta berak esandakoaren arabera, Café Iceta "oso famosua" izan zen Elgoibarren. 1913an zabaldu zuen Petra Ziaranek eta 1940. urtera arte egon zen zabalik. Geroago, begibistakoa da aldaketak egon direla.

Kafearen gainean Batzokia egon zen gerra zibila iritsi arte. Gerra izan zenean frankistak eurentzat hartu zuten lokala. Jaime Arrese zena izan zen lokala jabeei bueltatu ziena.

Norbaitek bestelakorik pentsatuko bazuen ere, balkoietan ikusten direnak ez dira Espainiako banderak, Ikurriñaren koloreekin egindako balkoi-oihalak baizik.







Gabi
JATETXEA

Ondo pasa San Bartolome jaiak!!

Nafarroa plaza - ELGOIBAR - Tel. 74 12 30

# Ardo kolorez jantzitako eguna

**Gaur egungo hilabeteko oporrik ez zuten ezagutzen orain 50 urte. Orduko sasoi hartan, opor egunak abuztuaren 23an hasten ziren eta jaiekin batera amaitzen. San Bartolome egunean estreinatzen zuen jendeak traje berria. Herritarrek ahalik eta gehien aprobetxatzen zituzten. Halere, badira zenbait gauza bere horretan mantentzen direnak, aldaketarik gabe. Eta Txiki Eguna beti izan da berezien artean bereziena.**



Pajazko txapela eta betaurrekoak jantzita, 1943. urteko San Bartolomeetan ere juergarako asmorik ez zen falta!

Bizperan eguerdira arte lan ein eta gose gehixokin hartzen zian jaixak" esan digu Juanito Gorostizak. Arratsaldeko 3etan kanpai mordo batek ematen zien hasiera San Bartolomeei, eta gero txafliguek. Barrubarruan sentitzen zituzten elgoibartarrek herriko patroiaren omenezko festak. Izan ere, urte osoan zehar, kuadrila bakoitzean kajero bat izendatzen zen eta haren arduran, lagun bakoitzak astero hainbeste pezetako kuota ordaindu behar izaten zuen. Jasotako guztia, San Bartolome

ZALDUA
ITURGINTZA
GAS ETA BEROGAILU INSTALAKUNTZAK
Urasandi 26. Tel: 74 05 30


ARE
Garajea eta auto konponketa
Engrasea - Olio aldaketa
Ekilibratua eta alineazioa
Jai Zoriontsuak!
P. M. urruzuno, 4 - Tel. 74 08 97 - ELGOIBAR

jaietan gastatzeko izaten zen.

Abuztuaren 23 batez eguerdiko 1ean Udaletxe aurrera hurreratzen den edonork gazte talde mordo bat, bakoitza bere lagun-taldeko alkandora bereziekin ikusi ahal izango du. Alkateak txupinazoa noiz botako zain, dozenaka txanpai botilaren eztandak probokatuz. Hori izan ohi da azken urteotan jaien hasierako ekitaldia. Lehen ez bezala. Ramon Maiztegiren hitzetan, “gure denboretan purua eta zerbezia izaten zian. Txanpaina burutik pasatu ere ez, txanpaina zabaltzia izango zan jata markauta geratzia, ta norberak barrutik ere kargua holako zeozer eitxeko. Dirurik ez zauan”.

## Txiki eguna

Bizperia, San Bartolome, Txiki eta Feria. Horiek ziren garai bateko jaiak. Eta guztiak egun handiak izan arren, Txiki eguna zen berezien artean bereziena. Orain dela 50 urte tabernak asko jota gaueko 3ak arte egoten ziren irekita, “eta jendiak jaixa gabaz bezela egunez gozatzen zaban. Ondo erretirau eta goizian fresko-fresko juten ginan sokamuturrera, txistularixek Idiarena jo eta gero”. Niki edo alkandora zuria jantzi, zapi gorria lepoan eta zezenen bizitasunak kaleak jantziz hasten zen Txiki eguna. Garai hartan, “ez zan usatzen hamarretakua hartzia txorixo eta saldiakin. Ez zauan soziedaderikan. Zezenak amaitxu eta merkatu plazan hartutako mahatsa jatia zan usadixua”. Gero, bat edo bat, mahats aleak elkarri botatzen hasi zen. Baina, urteren batean norbaitek ale ximelduekin estropozu egin eta ohitura bertan behera geratu omen zen. Orduantxe ekin zioten batzuk eguerdi parteko txikitoa aldamenekoari kamisetara botatzeari. Eta gaur arte. Eguerdiko 2etan kalean ez da txukun eta garbi jantzitako inor ikusten. Are gehiago, azken boladan modan dago ardoarekin batera arraultzak, irina eta antzeko narrazkeriak botatzea. Kinkallei erositako txapel mejikarra buruan jantzi eta juerga ederra izaten zen. Bazkaldu beti lagunekin, kuadrila asko eta asko Txiki egunez elkartzen dira oraindik orain.

## Paella, txipiroiak eta oilaskoa

Gorostiza eta Untzon taberna desagertu badira ere, nork ez du gogoan Errosario kalea Plazatik beheraino mahaiz beteta, ardoaren kolorez tindatutako niki zuriz estalita.... Kantua eta poza han hemenka. Umore onik ez da inoiz falta izan, ez Txiki egunean ez eta jai guztietan ere. Ramonek berehala luzatu digu orduko Txiki eguneko menua, “paellia, txipiroiak, oilaskua, frutia eta kafe konpletua”. Juanitok kontatu digunaren arabera, “lehen dantzarako sasoi gehixo egoten zan. Plaza Txikixan hiru konjunto egoten zian batera eta danetan jende mordua sueltuan edo agarrauan dantzan”.





Tipikoa zen itsasontzian sartu eta argazkia ateratzea. Sasoi hartan, jaiak mutil-kuadrilek gozatzen zituzten bereziki.

## Tabernak musikarik gabe

Sobremesa ez zen hitzaspertutan luzatzen. Lauretan enbolatuak izaten ziren Plaza Txikian eta hara joaten ziren guztiak, ausartenak hondar gainean zezena tentatzera eta besteak barreratik animatzera. Horrez gain,

ARKUPE
TINDATEGIA
Ondo pasa Sanbartolo jaiak!
Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

Ametsa
Ondo pasa Jaiak!
KAFETEGIA











Mautxitxa ezinbesteko bihurtu da Txiki egunean, Errosario kaletik Plazara bitarteko tartea jendez gainezka egoten da.. Eta oraindik ere mahasaren ohiturari eusten diotenak badauden arren, gazteen artean tetra-brik-aren desmadrea da nagusi.

pilota partiduak Plaza Haundian izaten ziren eta hara hona ibiltzen zen jendeak geldiunerik egiten zuen. Giro aparta sortzen zen.

Tabernaz taberna lehen ere ibiltzen ziren herritarrak, "baina musikarik ez zan eoten. Kuadrilak, umorian, kantau eitxen genduan. Besotik heldu eta batera eta bestera juten ginan, txikitua edan eta kantuan, mejikanadak, Boga-Boga...". Orain, jaia tabernara mugatzen dela dirudi, musika topera eta jendea jarritakoaren erritmora dantzan.

## Mauxitxa

Oinarrian Txiki egunak bera izaten jarraitzen badu ere, badira zenbait aldaketa urteetan zehar ezagutu direnak. Horien artean nabarmenena Mauxitxaren sorrera. Orain 26 urte sortu zen txarangaren jarduna ordutan luzatzen da Txiki egunean. Errosario kaletik Plazara bitarteko ibilbidean dozenaka kuadrila elkartzen dira eta txarangaren doinuen erritmora, poliki baina etenik gabe, bazkarira arteko denbora pasatzen dute. Egun horretan 4ak arte gutxi dira jatordua hasten dutenak.

Bestalde, Juanitok eta Ramonek aitortu digutenez, "lehen matxista xamarra zan jaixa. Gizonezkuen jaixa zan, emakumiak kalian gora eta behera ibiltzen zian baina oso gitxik disfrutatzen zeben gizonezkuen modura. Ez bazkaririk, ez txikiteorik... Oin diferentia da eta jaixa danentzat berdin da".

Lehen eta orain, San Bartolomeak hasteaz bat, herritar askok ekiten zion bikotea bilatzeari, gustuku pertsona ezagutzeari, ligatzeari... Edozein modutara deituta ere, Juanitok ondo asko esan bezala, "alkohol puntua hartu, konbersaziua praktikan jarri eta erretzo izaten da neskatan eitxia".

HERRI ESKOLA

*Elgoibarko Herri Eskolaren izenean*
*jai zoriontsuak opa dizkizuegu elgoibartar guztioi!*

**TALLERES MYL, S.A.**
Autonomia kalea, 4 - P.K. 81 - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 74 07 49 - 74 14 44 - 74 12 50 Faxa: 74 14 66

P R E Z I S I O M U N D U B A T



# Iñaki Mujika:

# "Watson zenaren omenez botatzen dou txafligu bat"

**Mujikatarra dugu. 40 urte ditu eta Donostian bizi da Iñaki, lanbidez sendagilea. Urtero, San Bartolome jaietan Elgoibarren izaten da, fin-fin. Eta gaurkoan gure artera ekarri dugu tradizio zahar bati eusten diotenen artean baitago. Izan ere, beste batzurekin batera, Giza Eskubideen parkean izaten da Iñaki arratsaldeko 3etan txafligua bota eta jaiei hasiera emateko.**

**- Elgoibarren tradizioz 3tan da txupinazoa.**

- Bai, gerra ostetik. Toki berdinian, frontoi atzeko parkian. Lehen sasixa eta ortua bakarrik zaon han. Txafliguak botatzen zian elizako kanpaixak jotzen zaben bitxartian.

**- Orduan ere jende asko elkartzen al zen?**

- Ez oin bezela. Igual Jai-Alain, Plazan jendia kafia hartzen eta... Ohitxuria izaten zan, baitxa ere, 3tako txupinazuan ostian jendia Gorostizara jutia kinan jolastera, oso berezixa izaten zan.

**- Halere, orain urte batzuk 1etan jarri zuten.**

- Bai, ez dakitx zergatik. Entzun naban 3ak ordu txarra zala, andrak bazkarixa preparatzen egon bihar ziala... Baina eskusak dia, horrek ez daka zentzurikan. Lelengo ordu aldaketa bakarrik ein zan, frontoi atzian botatzen zian eta. Gero, beranduo hasi zian Udaletxeko balkoitik botatzen, jendia Plazan txanpanakin...

**- Zuek 3etako txupinazoa mantentzen duzue.**

- Bai. 1etako txupinazua beste edozein herritakua bezelakua dala beitxintzen jata. Herri bakoitzan nortasunian oso garrantzi handikua da oinarrizko gauza batzuk mantentzia eta nik sentitzen doten bezela, jaixak arratsaldeko 3etan hasi bihar dia, eta frontoi atzeko parkian. Antonio Lopez pintoriak esan zaban haurtzaroko herrixa magikua dala, hor deskubritzen dozulako mundua. Neretzat Elgoibar, San Bartolomiak magikuak dia eta hoiek mantendu ein bihar dia.



> **"Gauza batzuk mantendu ein bihar dia. 3etako txupinazua eta sokamuturra herrixan nortasunan parte dia"**

**- Aldaketa gabe.**

- Honbre, aldaketa batzuk eon bihar dia. Lehen ez zauan gaztien egunik esaterako, eta holako gauzak egotia aberasgarrixa da baina gauza batzuk mantendu ein bihar dia, herrixan nortasunan parte dia eta. Neretzat, sokamuturra kenduko balebe ere jaixak ez zian jai izango. Eta fetxaz kanbixauko bazian ere desberdina izango zan.

**- Nola izaten da 3tako txupinazoa?**

- Lehen hiru txanda izaten zian. Txanda bat bota eta gero kanpaixek jotzen zeben, gero beste bat, eta beste bat... Oin kanpairik ez dao. Lelengo bonba bat botatzen da 3etan puntu-puntuan jaixeri hasieria emateko. Gero, beste hiru bonba botatzen dia eta amaitzeko txafligu guztiak, 40 dozena edo. Oin, bonba bat botatzen da Watson Gorostiza zanan omenez, bera ere oso sartuta zauan 3etako txupinazuan, elgoibartar jatorra zan.

**- Kanpairik gabe gaur egun.**

- Bueno, badakitx Txomin Zabaletak aspaldixan jotzen zian kanpaixak grabauta ditxula eta beti, 3etako txupinazuakin batera, etxeko balkoira urtetzen da magnetofoiakin eta bafliekin eta kanpaixak ipintzeitxu.

**- Umetatik bizi izan duzun zerbait da, ez?**

- Bai, akordatzen naiz zela 12 urte nitxuanian aitxa etorri zan etxera eta makil bat eman zian, egun haretan botatako lelengo txafligua zan. Demaseko ilusiua ein zian.

**- Jaietako egunik gustukoena?**

- Bizperia eta San Bartolome eguna. Berezixak dia, lagunekin elkartu... Oin jaixak gabaz izaten dia baina neretzat egunez ere bizi bihar dia. Nik nahixao dot leheno erretiratzia eta gero egunez sokamuturrakin hastia.

PITXINTXU

*Eskolarako materialak,*
*dibertigarriak benetan,*
*prezio onean, aukera handia...*
*San Frantzisko kalea 27an,*
*erdi-erdian!!*

San Frantzisko, 27 - Tel. 74 32 06



Iraegui

**ERROTULUAK**

*Gora San*

**Olaso Poligono Industriala. Olaso Kalea 15, 55 A**
**Tel. 74 39 52 - 74 37 06 - FAXa 74 39 51 ELGOIBAR**

**EUSKAL HERRIA**
**ASKATU ARTE**
jo ta ke!!

ELGOIBARKO HERRI BATASUNA

# BATA ala BESTEA

# Ana Santolaya

Kultur zinegotzia



● **Jairik gustukoenak?**
◗ San Bartolomiak.
● **Egun bat?** ◗ Txiki eguna.
● **Ekintza bat?**
◗ Zezena edo txarangia.
● **Mauxitxa edo Banda?** ◗ Txarangia.
● **Jaiak bikotearekin ala kuadrilarekin?** ◗ Kuadriliakin, dudaripe.
● **Gauez ala egunez?** ◗ Lehen gauez, oin egunez.
● **Sokamuturra kalean ala leihoan?** ◗ Leihotik, kalian sekula ez naiz ibili eta hori nere etxian badiala. Aitxa ondiok ibiltzen da.
● **Noiz hasten dira jaiak?**
◗ Gurian beti hiruretan baina zela iaz balkoian egon nitzan, ordubatian!
● **Juergarako edari bat?** ◗ Txanpaina.
● **Dantzarako musika?**
◗ Txarangia eta tabernetan ipintzen daben edozer.
● **Gehiago ligatzen al da jaietan?**
◗ Ahiztuta nao baina baietz uste dot, ez? Jendia animauta egoten da.
● **Zapia zein egunetan?** ◗ Txiki egunian bakarrik.
● **Barraketan ibiltzen zera?** ◗ Autotxokietan bai.
● **Zer nahiago, "Def Con Dos" ala "Gozategi"?**
◗ Uste dot bixetan egongo naizela baina nahixao dot "Def Con Dos".
● **Zein gonbidatuko zenuke jaietara?** ◗ Harrison Ford.
● **Umetako oroitzapenik?** ◗ Kabezudueri kriston bildurra niuen!
● **Zer falta zaie jaiei?** ◗ Ez dakit, bestela ipiniko nuke.
● **Jaien kalitatea diru kantitatearen araberakoa al da?**
◗ Bai, lehen ez naban hola pentsatzen baina oin bai.
● **Jaiek egun bakarra iraungo balute?**
◗ Txiki egunan antzerakua izango litzake, sokamuturra, txarangia...
● **Ardoa botatzen ibiltzen al zara?** ◗ Bai, baina tamainan, oin desbordau ein da, tetra-brik eta guzti ibiltzen da jendia...
● **Zein ekintzatan "desmelenatu" da aurten Udala?**
◗ Def Con Dos-ekin.
● **Jaiak amaitzeko erarik onena?** ◗ Su artifizialak.

# BERTSOTAN

## SAN BARTOLOME JAIAK

Jaiek badute ulertu ezin den
zerbait barruan gordea:
Bezpera Eguna pasa ondoren
"bixamona" da legea
Zaharren Eguna iritsi orduko
amonak egin du berea
Baserritarren larunbata ere
kaletarrentzat hobea
Txiki Eguna niretzat beti
handiena da, ordea
Deskantsu Eguna heltzen denean
orduantxe hartu nekea.
Ondo pasatu herriko festak
ta ondo pasa ajea.



ABEL IRIZAR

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK
Juan Carlos
Urasandi 59 - 61 behea -Tel. 74 34 87 ELGOBAR

Ortueta
ZAPATAK ETA POLTSAK
San Frantzisko 2 - ☎ 74 04 95 - ELGOIBAR



**IDARRAGA**

KAFEAK

**Eguneroko errealdiak**

*Aupa San Bartolomiak!!*



San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39



JAIETAN

OILASKO GOXOA ETA

ETXEKO SAGARDOA

[redacted]

**LOS**

**TABERNAN**

***Ondo pasa jaiak!***

**Tel: 74 03 87**



**Linny**

GAZTEENTZAKO

MODA

*San Bartolome jai*

*alai eta zoriontsuak*

*opa dizkizuegu*

*herritar guztioi.*






San Frantzisko, 35 . Tel. 74 06 38



# BOUTIQUE DEL PAN

**Enpanadak** **Enbutidoak**

**Baserriko ogia** **Boileria**

*Ondo pasa jaiak!!*

San Bartolome 6 - Bernardo Ecenarro 1

ELGOIBAR ☎ 74 33 92



*Apraiz*

**LURRINDEGIA**

*San Bartolome jai zoriontsuak*

*opa dizkizuegu herritar guztioi!*

San Bartolome, 20 - Tel. 74 07 44

20870 ELGOIBAR

# Altzolako zubia (II)

■ Aurreko artikuluan esan bezala, XVI. mende aldera eraiki zen harrizko zubia. Une hartan, bertako ibai-portuak garapen handia ezagutu zuen eta, honekin batera, lonjak, etxeak eta dorretxeak eraiki ziren eta aurretik zeudenak handitu.

■ Ibaiaren ezker aldean, San Anton eliza eta ospitalea, etxe bakarren bat eta baratzak bakarrik bazeuden ere, mende honen bukaeran eta garapen honen islada, San Juan Bautista eliza eraiki zen.

■ Zubiaren lehen zabalketa, Bergara-Plazentzia-Elgoibar-Altzola bide-adarraren proiektuarekin (1775-1785) eta Altzolatik Deba eta Mutrikura arteko jarraipenarekin (1784-1790) lotu beharko genuke.

■ Beste udalek eurei zegokien zatiak eraiki ondoren, Elgoibarkoak berari zegokiona ez zuen hasten arrazoi ekonomikoak argudiatuz, besteak beste Altzolako ibai-portua ixtea ekarriko zuelako. Azkenean, hainbat urtera, Independentzia gerraren ondoren, "Deba ibaiko bidearen hermandadeak" Altzola-Plaza bide zatia eraiki zuen.

■ Bigarren zabalketa, hormigoizko hegalkina alegia, XIX, mendearen azken laudenetik gertu eraiki zen eta Aldundiak egin zuen probintziako errepideen aginpidea izan ondoren.

■ Orduko, Altzolako senda-urberoek ospe handia zuten.

■ 1953. urtea garrantzitsua izan zen zubiarentzat. Urte horretan ireki zuten Altzolako saihetsbidea eta ordutik aurrera Elgoibar-Mendaro eta alderantzizko ibilbidea zubiaren albo batetik pasatuko zen trafikoarentzat.

■ Joan den abuztuan, aspaldiko partez, kainaberarekin arrantzan ikusi ahal izan zen jendea zubitik. Gure Deba ibaian loinak, barboak eta aingirak bizi izaten ikusiko al ditugu?

PELLO ARRIETA





# Juan Zubiaurre Zabala (1905-1977)



- San Bartolome kalean jaio zen 1905eko irailaren 6an.
- Manuel Zubiaurre eta Guillerma Zabalaren semea, zortzi anai-arrebaren artean seigarrena zen.
- Juana Ansola Zelaiarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.
- Bere familiarekin batera "Vda. de Zubiaurre" tornileria eraiki zuen, herrian lanpostu berri ugari sortu zituelarik.
- Gizon adeitsua, borondate onekoa eta egiazko laguna.
- Zaletasunen artean aipatzeko modukoak dira zezenketak eta musika. Honez gain, asko gustatzen zitzaion "Bar Luis" eta "Gorbea" tabernetan egiten ziren eguneroko tertulietan parte hartzea.
- 1977ko abenduaren 6an hil zen 72 urte zituela.

JUANITO GOROSTIZA

Arantzazu
EDERGINTZA
JAI ZORIONTSUAK!
San Inazio, 4
Tel. 74 27 25

Nieva
ileapaindegia
San Frantzisko, 9
Tel. 74 04 96

BAZAR
San Bartolome, 9
Tel. 74 35 36

USATORRE
Taberna
San Antolin. Tel. 74 17 99






## ETXANIZ MEMORIALAREN 50. URTEURRENA

# San Pedrora kronoeskaladarekin ospatuko dute mende erdiko ibilbidea

**Abuztuaren 23an, 110 km-ko lasterketa eta kronoeskalada antolatu ditu Gure-Bide elkarteak, aurtengo edizioa berezia baita: 50 urte betetzen ditu lasterketak. Lehen mailako Nazional kategoriako 19 eta 23 urte bitarteko lasterketaren ostean lehen hogei sailkatuek kronoeskalada egingo dute Plaza Handitik San Pedrora. Ranpa moduko bat kokatuko da Plazan eta minutuero txirrindulari bati irteera emango zaio. Lasterketa goizeko 9etan hasiko da eta kronoeskalada 12,15etan.**

Lehendakari txapelketa"ren 50. edizio honetan ibilbidea zertxobait aldatu da Azkoitian obretan baitaude. Elgoibarren hasita honako leku hauetatik pasatuko dira: Altzola, Mendaro, Sasiola, Deba, Mutriku, Kalbarioa (puntuagarria), Sasiola, Mendaro, Altzola, Elgoibar (herriko zirkuitua), Azkarate (puntuagarria), Azkoitia, Urretxu, Deskarga (puntuagarria), Bergara, Plazentzia eta Elgoibar (herriko zirkuitua), Azkarate, Aldazabal baserria (desbideraketa), S. Antolin eta Elgoibar (Helmuga). Irteera goizeko 9etan izango da Trenbide kaletik eta irtsiera goizeko 11,30etan leku berean.

### Sari banaketa berreskuratu

Lehen sailkatuari bertan emango zaio saria baina gainontzeko sariak, hau da, lehen hamaika txirrindulariei eta taldeka lehendabizi geratu den taldeari ematen zaizkienak, hauek guztiak Gure-Bide elkartean bertan banatuko dira ondoren. Elkarteko arduradunek esan digutenez, "Gure-Biden gaur egun galdu diren ohiturak berreskuratu nahi izan ditugu eta horietako bat elkartean bertan egiten zen sari banaketa da". Ekitaldiaren ostean omenalditxo bat egingo zaio Ramon Maiztegiri, Gure-Bide elkarteko bazkide eta txirrindulari lasterketa honen inguruan hamaika lan egindako elgoibartarrari.

### 50 urteko omenaldia

Gure Bide Elkartea sortu zenean, 1959an "Etxaniz Memoriala"

ERREZABAL taberna
Ondo pasa Jaiak!
Ermuaran-bide. Tel 74 26 33. ELGOIBAR

JOSE ANTONIO ileapaindegia
•Hies-a eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik. •"Tresneria zorrotzekin arreta handiena eskatzea gomendatzen diogu bezeroari.
Errosario, 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR












**Hona hemen lasterketaren hainbat instant:**
**1- Mujika elgoibartarra saria jasotzen. 2- Lasterketa Pilar ikastetxeko zubi zaharretik pasatzen. 3- Nafarroa plaza ikuslez gainezka txirrindularien iritsiera ikusteko. 4- Epailak eta antolatzaileak lanean. 5- Eskuman Ramon Maiztegi, aurten omenduko duten Gure-Bideko bazkide historikoa. 6- Txomin Perurenak oso gaztetan irabazi zuen Etxaniz Memoriala. 7 eta 8- Lasterketaren bi une ezberdin.**



antolatzen hasi ziren txirrindulari elkartekoak. Askorentzat ezezaguna den txirrindulari elgoibartarraren, Etxanizen, omenezko lasterketa da. Gure Bidekoek kontatu digutenaren arabera, Etxaniz gaztea “kirolari aparta” ei zen. Umetatik txirrindularitza, diska jaurtiketa, altuera jauzia eta beste hainbat kiroletan aritu izan zen, bai eta zenbait sari irabazi ere. Ez zuen, ordea, bizitzaz luze gozatzeko aukerarik izan. Gripe izurrite bat hedatu eta gaixotasun honek jota hil zen 19 urte besterik ez zituela. Bere omenez egiten den txirrindulari lasterketa honek 50 urte beteko ditu aurten. Merezitako omenaldia.

Gabiola
GESTORIA
ERRENTA AITORPENA, BAIMENAK ...
EDOZEIN LAN EGITEN LAGUNDUKO DIZUGU.
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR

Richi
Zorionak eta ondo pasa jaiak!
ILEAPAINDEGIA▪DEPILAZIOA▪MASAIA
ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:
Koipea ▪ Kaspa ▪ Erorketa
Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR

# GABRIELE BASILICO

## Itsasaldeko hiriak zuri-beltzean

Ongarri Argazki Taldeak Gabriele Basilico argazkilari italiarraren argazki erakusketa antolatu du aurtengo San Bartolome jaietarako. Hilaren 22an hasi eta irailaren 14ra arte Kultur Etxeko erakusgelan egongo dira ikusteko moduan itsasaldeko hirien erretratuek osatzen duten bilduma. Azken aldi honetan Basilicok ateratako argazki onenen artean aukeraketa bat egin eta horiek hurreratu dizkigu Ongarrik elgoibartar orori. Guztira 57 irudi.



BIlbo industrialaren ikuspegia. Basilicok hiriak erretratatzea du gustuko.

Zuri-beltzekoak dira Milanen jaiotako argazkilari ezagunaren kamararekin egindako argazkiak. Ikuspegiak edo panoramikak, itsas-ertzean kokatutako hirien ikuspegiak guztiak. Ikus daitezkeen argazkien artean aipagarriak dira azken urteotan R. Frank, J. Koudelka, R. Depardond eta R. Burrirekin batera, Beirut hiriari buruz egin duen lan berezia. Honez gain, Bilbo, Madrid, Módena, Niza, Oporto, Milán, Cambrils eta beste hiri asko erretratatu ditu argazkilari heldu honek.

### Argitarapenak

Paisaia erretratatzaile dugu Gabriele Basilico. Arlo honetan Europako argazkilari onenetarikoa da. Argitara eman dituen liburuen artean, honako hauek dira azpimarragarrienak: “Dancing in Emilia” (1981), “Milano, ritrati di fabbriche” (1982), “Italia & Francia” (1986) eta azken urteotan “In treno verso l´Europa” (1993) eta “L´Esperienza dei luoghi” (1994).

Argitarapenak kaleratzeaz gain, han eta hemen egin ditu erakusketak. Europa eta Amerikako galeria garrantzi-tsuenetan erakutsi du bere lana: Milan, New York, Fundació Miró Bartzelonan, Lausanne, Paris, Yokohama, Basilea..

. Kultur Etxeko bisita ordutegia: arratsaldeko 6etatik 9ak arte eta jaiegunetan 12etatik 2etara bitartean.

XABIER
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
Ondo pasa jaiak!
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

Merino zapatak
UMEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO OINETAKOAK
Ondo pasa jaiak!

Errosario 11/12 behea • ☎ 74 34 35 •

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.
Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Jose Ignacio Ulacia Echeverria
AROZTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA
Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47
Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

# Kartel lehiaketa orain 30 urte hasi zen

Ez pentsa, ez, kartel lehiaketarena gauza berria denik. Jakin ahal izan dugunez, badira 30 urte, gutxi gorabehera, Udala aipatu lehiaketa antolatzen hasi zela. Dirudienez, garai hartan Bernardo Ecenarroren “Artes y Dibujo“ eskola zegoen Elgoibarren. Asko eta asko ziren bertara joaten zirenak ikastera eta, nola ez, marrazten ere irakasten zitzaien. Afizio handia zegoen. Hori ikusita, Udalak nolabaiteko indarra eman nahi zion marrazketari eta San Bartolome jaien egitasmoaren azal lehiaketa antolatu zuen.

## Ordenagailuaren aroa

30 kartel ezberdin jasotzen ziren urtero, gaur egun 9 inguru baino ez. Elgoibartik ezezik, kanpotik ere bidaltzen zituen jendeak beren lanak. Eta guztira hiru sari eta akzesita banatzen ziren. Ez zen, ez, makala!

Oinarrietan, kartelaren tamaina ezezik, beste hainbat puntu ere zehazten ziren. Horien artean baita zein kolorez eginak egon behar zuten ere.

Urteek aurrera egin ahala, zenbait gauza aldatu egin dira. Batetik, gaur egun askoz jende gutxiago aurkezten da. Arrazoia, beharbada, gainontzeko herrietan ere gero eta lehiaketa gehiago egon eta denetara ezin denez, bakarren bat aukeratu behar izaten dela. Bestetik, orain 30 urteko eskuz eginiko kartelen aurrean, gaur egun ordenagailuz diseinaturikoak nagusitzen dira, edo horiek dira behintzat askotan sarituak suertatzen direnak. Punta-puntako teknologiek aurrea hartu diote arte tradizionalari.

30 urte hauetan izan da etenik kartel lehiaketan. Hainbat urtetan, lehiaketarik egin gabe, zuzenean argazkiren bat aukeratu izan da. 1990 eta 91. urteetan esaterako, Soarteren argazkiekin egin zen egitasmoaren azala, inongo lehiaketarik gabe. Gainontzean, azken urteotan Javi Barrenetxeak (1992), Andoni Larrañagak (1993), Edu Arrillagak (1994), Pello Ezkurrak (1995) eta Leire Solupek (1996) irabazi dute lehiaketa.




Hona hemen San Bartolome jaien hainbat azal.

Maria Urizar
ileapaindegi
mistoa eta solariuma
JAI ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!
Errosario 9-1ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

MEKANIZATUAK
MEKANIZATU
HAUNDIAK
153 Potsa kutxatila
Ibaitarte kalea, 2
74 12 97 - 74 06 64
Faxa 74 43 21



Migel ALTUNA institutua (BERGARA)
ERDI MAILAKO ZIKLOA
ENPRESEN
D ereduan BAG
FABRIKAZIO MEKANIKOA
D ereduan BTI
SISTEMA AUTOMATIKO
A ereduan BTI
MAKINA ETA SISTEMA
D ereduan BTI
ADMINISTRAZIO ETA GESTIO LAGUNTZAILEA
A ereduan
IEE 1. zikloa BBB 2. maila
MATRIKULA: Irailaren 5etik 11ra
Ordutegia: 9,30etatik 1etara
Migel Altuna Institutua
Ibargarai, 1 (BERGARA)
Tel. 76 38 40 - 76 29 41




JUARISTI Aroztegia
ERAKUSKETA BERRIA
Santa Ana 18 - Tel. 74 29 94 - ELGOIBAR
PROIEKTU eta ERREFORMAK
LEIHOAK - ATEAK - ARMAIRU ENPOTRATUAK - TARIMAK
JUARISTI

# Ibiltzen al zara txoznetan?



**ASIER GABILONDO**
**21 urte**

Bai txoznetan bai tabernetan. Jaixetan, txoznak tabernen zirkuituan sartzen dia eta danian ibiltzen gera. Tabernak oso agobiantiak daozenian nahixao txoznak.



**NEREA SAEZ**
**15 urte**

Batzuetan lagunekin eta bai, eta ondo pasatzen dogu. Aurten hasi gera tabernetara sartzen. Txoznetan jende gaztiaua egoten da baina gu danian ibiltzen gera.



**NEIDA MUNOZ**
**16 urte**

Txoznak gustatzen zaizkit baina musikaren arabera mugitzen naiz batera eta bestera. Halere, jaietan giro ona egoten da toki guztietan eta denean ibiltzea gustatzen zait.



**RAUL AMADO**
**15 urte**

Normalian tabernetan ibiltzen naiz, Lanbroan. Txoznatan anbiente gutxio egoten da, trago bat hartzeko ondo daude baina martxarako tabernak hobeto daude.



**IGOR MARTINEZ**
**18 urte**

Bai, bai, asko gustatzen jataz. Noizbehinka tabernetan ere ibiltzen gera baina txoznetan gehixo, gaztiak ere han egoten dia eta, beste giro bat dao. Dana dala, jaixetan danian ondo.



**ANA CABALLERO**
**25 urte**

Toki guztietan ibiltzen naiz, bai tabernetan bai txoznetan. Jaietan ez zara hain exigentea, ez musikarekin ez lekuarekin. Dantzarako tabernak hobe, hitzegiteko, berriz, txoznak.

TABERNA
Lci wpctvgmq
clctlgvctcmq ngmw
crtqrqc
Aupa San Bartolo!
San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95



• Eramateko
OILASKO ERREAK
• Hobe aurrez
eskatuz gero

JATETXEA
ETA
TABERNA
Gora San Bartolome jaiak!!
P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

# IBAI

## Kluba

Gogoratu ikasturtea
irailaren 2an hasiko dela!!





**AEROBIC**

**MANTENU GIMNASIA**

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

**MUSKULAZIOA**

**AIKIDO**

**JUDOA**

**TAEKWONDOA**

**WING/TSUN**

**ESCRIMA**







Santa Ana, 46
Tel. 74 07 93- ELGOIBAR

---

San Bartolome
jai zoriontsuak
elgoibartar
guztioi!




**IRAKASLE ELKARTEA**

# ZEZENBIDE

**auto-eskola**

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

# Sei txozna egongo dira aurten Madalan

Udalak antolatzen duen jai-egitarauaz aparte, herriko hainbat taldek eta kolektibok jarritako txoznak daude Madalako parkean,"gune askatua" izendatu ohi den lekuan, hain zuzen. Aurten, ohiko lau txoznez gain, Gestorak, Jarrai, Antimiliak eta Zazpiki, bi gehiago daude: Sigmako Pedrusko futbito taldearena eta Aitor Esnaola eta Josu Merino mendizaleek jarri dutena.

Urteroko lau txoznak Madalako parke barruan kokatu dira. Beste biak, berriz, Lanbroa taberna parean. Kokalekua dela eta ez dela, iritzi kontrajarriak egon dira txoznen eta Udaleko Kultur Batzordeko arduradunen aldetik. Txoznetako kideen arabera, "uztailaren bukaeran bi parteak bildu eta azkenean Udalak txoznen erabakia onartu zuen, ados egon ez arren.



Aipagarria da Udalak iritzia eskatu digun lehen aldia izan dela." Udalak ez zuen Madalako parke barruan txoznarik kokatzerik nahi; kontzertuetarako libre uztea zen asmoa. Hortaz, txoznak Ermuaranbiden jarriko ziratekeen, bata bestearen ondoan, ilaran-ilaran. Txoznek, berriz, urteko dirua txoznetatik lortzen dutela kontuan izanda, Madalan egotea beharrezkotzat jo zuten, eta bertan kokatzea erabaki. Udalak azkenean, txoznen erabakia onartu egin zuen.

Urtero bezala, hainbat ekintza burutukodira egunak aurrera doazen heinean. Ohi denez, arratsaldeko 6etan txupinazoa izango da, eta atseden egunetako batean, ostegunean hain zuzen, bazkari herrikoia eta gau partera rock kontzertua.

## EGITARAU ALTERNATIBOA

### 23, ostirala

**12,45** Ikurriñari omenaldia Plaza Handian: Ikurriña jartzea, aurreskua, txalaparta eta ber-tsolariak HBk antolatuta.
**15,00** Txupinazoa Eskubideen Parkean.
**18,00** Txupinazoa txoznetan: ikurriña hjartzea, txalaparta...

### 26, astelehena

**14,00** Gestoren bazkaria Madalan.

### 29, osteguna

**14,30** Bazkari herrikoia.
**Bazkalostean,** Triki Ta Ke taldea.
**Gau partean,** rock kontzertua.

### 31, larunbata

Presoen senitartekoei omenaldia egingo zaie eta ondoren, manifestazioa.





BRONCES GARITANO,
San Bartolome Jai
Olaso kalea 15 · 20870 ELGOIBAR · Tel. 74 41 25 - 74

NORFO S.L.
La Estrella
ASEGURUAK
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23

# Bi egunez luzatuko da Euskadiko Limousin azoka

Abuztuaren 31n, larunbata, eta irailaren 1ean, igandea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako txoko guztietatik etorritako ganaduzaleen abere-buruez beteko da Plaza Txiki ingurua. 120 bat abere-buru erakutsiko dira eta Euskal Herriko limousinen kalitate altua ikusita, lehia handia espero da txapelketan.

Larunbatean, goizean goiz kamioietatik abereak jaitsi eta bata bestearen ondoan kokatuko dituzte jendeak ikusteko moduan. Horrelaxe egongo dira igandeko arratsaldeko 7ak arte. Udala, Debemen, Kalamua Elkartea, Elife Limousin Federazioa, Aldundia eta Jaurlaritza dira aurtengo feria bultzatu duten erakundeak. Euskal Herria goi-goi mailako erreferentzia da limousin arrazan. Aian genetika zentru bat dago eta aurrerakuntza handiak egin izan dira arrazaren hobekuntzari dagokionean. Horregatik erakusleku eta merkatura begira propagandaleku ere izango da Elgoibarko azoka. Euskal Herrira ezezik, Estatu osora ere zabaldu nahi dute Elgoibarren izango den azokaren ohiartzuna, Salamanca eta Andaluzia aldeko ganaduzaleei etortzeko gonbitea luzatu zaielarik.



Limousin arrazan goi mailan dago Euskal Herria. Hona hemen adibide bat.

### Bigarren aldiz Elgoibarren

Limousin azoka Elgoibarren ospatu zen lehen aldiz 1993ko azaroaren 5ean. Ordutik hiru azoka egin dira, Elgoibarren lehena, bigarrena Bizkaian Itsaslur azokaren barruan eta hirugarrena Arabako Izarra herrian. Aurten Gipuzkoan egitea tokatzen zen eta Elgoibar ezezik, Usurbil eta Tolosa ere feria antolatzeko prest zeuden. Lehia gogorra egon omen da feria nork bere herriratzeko baina azkenean, lehen feriaren esperientzia aintzakotzat hartuta, Federazioak Elgoibarri egokitzea erabaki du. Ohiko San Bartolomeetako bailarako ganadu feria Oñatin egingo da aurten. Hortaz, Limousin azoka Gipuzkoan egitea tokatzen denean, aipatu bailarako ganadu azoka Oñatin izango da.

NOVAK C.B.
MEKANIZATUAK
OLASO INDUSTRIALDEA 37
TEL. 74 37 02 FAXA: 74 39 01
20870 ELGOIBAR GIPUZKOA
San Bartolome jai Zoriontsuak!

NOZKi
DIETETIKA KONTROLA
Foruen plaza, 5
Tel. 74 08 78

ibai-ondo
Erretegia
Giza eskubideen Plaza
Tel: 74 26 27

ALDERDI POPULARRAren
izenean San Bartolome jai
zoriontsuak!



ALTZARIAK-DEKORAZIOA

Iriondo

Ondo pasa
San Bartolome

Santa Ana, 4 eta 6
Tel: 74 12 34
ELGOIBAR

San Bartolome
Zoriontsuak!

GORROÑO
dekorazioa

Zure etxea dekoratu nahi baduzu,
geurean aukera zabalena daukazu

San Bartolome, 21 - Tel. 74 01 91 - 20870 ELGOIBAR

# Udako abestiaren arrastoan

Ainhoa eta Asier Gozategi oriotarrek eta Iñigo Goikoetxea nafarrak osatzen dute Gozategi taldea. Duela urte eta piku lehen maketa kaleratu zuten eta ordutik hona bi diska kaleratu dituzte eta milaka kopia saldu. Arrakastaren bidea urratu dute Gozategi taldekoek. Elkarrizketa egiteko Ainhoa Gozategirekin harremanetan jarri ginen eta hona hemen hark erantzundakoa.

- Berehala etorri zaizue ospea.

- Lehendabizi maketa bat kaleratu genuen eta iazko udan “Nor-Nori-Nork” izenburuko diska. Milaka ale saldu ziren eta orain kaleratu dugun diska ere bide beretik doa.

- Abesti “gozoak” ala pikanteak” nahiago? - Letra gehienak Asierrek egiten ditu eta gure asmoa inguruan bizi duguna isladatzea da. Nola ikusten dugun errealitea, hala jasotzen dugu guk abestietan. Ironia eta umorea dira gure ezaugarririk nagusienak.

- “Macarena”, “Cachito” eta udako abestiekin batera entzuten da zuen “emoistasuz musutxuek” taberna eta txoznetan. - Abesti bat egiterakoan guk ez dugu aurrez planteiatzen jendeari gustatuko zaion ala ez. Guk entzun nahi ditugun kantuak egiten ditugu, gogoko ditugunak dira.

- Trikitiaren aro berrian koka al daiteke zuen estiloa? - Orain arte guk ez dugu trikitia jo. Asierrek txarangoa jotzen du eta Iñigok bajoa. Fandangoak, arin-arinak eta betiko trikiti piezak, zaharrek erromerietan jotzen dituzten horiek oso aberatsak dira; gu horien aberastasuna jasotzen saiatzen gara. Inspirazio iturri dira.

- Gipuzkoarrak izanik, nolatan bizkaieraz abesten? - Ez da intentzionatua izan. Asierrek trikiti klaseak ematen zituen Gasteizen eta Jon Maia ezagutu zuen. Lagunak dira eta “Emoistasuz...” abestiaren letra Jon Maiak idatzi zuen. Letra bizkaieraz izatea zerbait espontaneoa izan zen, horrela atera zitzaion Jon-i eta gainera, musika eta letra erabat akoplatzen dira. Jon Maiak dioen bezala abesti horrek “magia” dauka.

- Zerekin hartzen dute Gozategitarrek “gozatu” eder bat? - Ba, erromeria eder batekin. Taula gainera igotzen gerenean izugarri ondo pasatzen dugu guk. Lana gustura egiten dugu eta hortaz, doblea disfrutatzen dugu.



Ezkerrean, Ainhoa eta Asier Gozategi anai-arrebak. Eskuinean, Iñigo Goikoetxea.

OLATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Onso pasa San Bartolomiak!
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 74 38 44

MODAS FERPI
Jai zoriontsuak!
San Bartolome, 28
Tel.74 43 45

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Etxebizitza-komunitate eta profesionalei harreta zuzena:
- PINTURA ALMAZENA
- ERREMINTAK, LANERAKO TRESNAK
- FINANTZIAZIOAK NEURRIRA
San Roke, 30 behea / ELGOIBAR / ☎ 74 36 52 - 74 27 89

# Merkatu Plaza

*Uste duzuna baino askoz gehiago!*



## Jai Zoriontsuak herritar guztioi!

**AMAIA frutadenda**



**INAKI eta AMPARO urdaitegia**



**DOMINGUEZ arrandegia**



**MARI harategi-urdaitegia**



**MARI ANGELES frutadenda**



**ONDARRUTARRAK arrandegia**



**OSORO urdaitegia**



**PEREZ zapatadenda**



**TXILLARRE barazkiak**



**TXIRIBOGA taberna**



**ZABALA frutadenda**



**ZABALA urdaitegia**



BANATZAILE OFIZIALAK:

Biefbi cucine

PEROBELL

cattelan italia

EBANIS

MOVE

GRASSOLER DESIGN

herma

NANI MARQUINA

nueva línea

CARLOS JANÉ CAMACHO

porada

racconti cucine

STOKKE

TEMAS V

# Zur ta Lur

ALTZARIAK

*Gurea beste mundu bat da. ZATOZ!!*







SWISSFLEX

AIREZKO KOJINA DUTEN



**Olaso kalea 27 eta 54 A - ELGOIBAR 20870 - Tel./Faxa: 74 42 84**


SAN BARTOLOMEAK
ELGOiBAR
MAITE REMENTERIA

# Agurra

Urtebete igaro da eta konturatu gabe San Bartolome 96 jaien atarian gaude.

Oraingoan ere gure futbol taldeek ez dute ligarik irabazi eta Tour-ak ere kale egin digu.

Eguraldia gutxienez ziurtatu dugu, baina badaezpada ere, monjekin tratua egin beharko dugu.

Arrazoi ezberdinak direla eta, jaietara etorri ezingo diren elgoibartarrak gure artean egotea izango litzateke nire nahia.

Ni, behintzat, jaiak ahalik eta hobetoen pasatzeko prest nago, horretarako egitarau aproposa baitugu, eta zuek prest al zaudete?

Jai zoriontsuak opa dizkizuet denoi

**Zuen alkatea**




Kidea
ASESORIA ETA CONSULTING
- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK
Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

ALUMINIOS LODOSO
MERKATUKO AZKENA LEIHOETAN
Jai zoriontsuak!
Ermuaranbide 16. ☎ 74 34 90

OIHALA eta MERZERIA
Aupa San Bartolo!
Neurrira egindako jantziak
Errosario 8 • Tel:74 35 95 • ELGOIBAR

GABILONDO
INMOBILIARI AGENTZIA
Jai Zoriontsuak!
S. Frantzisko, 51. 1D
Domingo Irala kalea

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

AZPELETA elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
Ondo pasa Jaiak!
San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

# Bezpera eguna



## 23 ostirala

**9,00** L. ETXANIZ MEMORIALA.

**11,30** Lasterketaren IRITSIERA Trenbide kalean.

**11,45** ERLOJUAREN KONTRAKO lasterketa Plazatik San Pedrora.

**13,00** TXUPINAZOA.

**Ondoren** MAUXITXA txarangaren kalejira.

**16,00** Demaseko KINA Jubilatuen Etxean.

**16,30** ERRALDOI eta BURUHANDIen kalejira Herriko Dultzaineroekin.

**17,00tik 21,00etara** Haurrentzako JOLAS PARKEA Plaza Handian (Euria eginez gero, Kiroldegian).

**18,00** "Elgoibarko Hiria" FUTBOL TXAPELKETAko bigarren partidua Mintxetan: C.D. Elgoibar - S. D. Eibar.

**20,00** SALBEA, Udalbatza, Txistulari eta Parrokiko abesbatzarekin.

**23,00** DULTZAINEROak Plaza Handian.

**Ondoren,** IZOTZ taldea PLAZA HANDIAN.

**23,00** GOZATEGI anaiak MADALAN.

**24,00** MAUXITXA txarangarekin kalejira.



### *L. ETXANIZ MEMORIALA*

*50. urteurrena ospatzen du aurten Etxaniz Memorialak. Hori dela eta, 110 km.ko lasterketa eta kronoeskalada antolatu ditu Gure-Bide elkarteak. Kronoeskalada Plaza haunditik San Pedrora arte izango da. Minutuero emango zaio irteera txirrindulari bati.*

foto | azkue

Ondo pasa Sanbartoloak!

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

BAMA S.L.
ERAIKUNTZAK



ETXEBIZITZA
ETA
PABILIOI INDUSTRIALEN
**PROMOZIOA**

San Inazio,4 - Tel 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

..TXIMI, S.A. TAILERRAK..

Tornu, fresadora eta rektifikatu
LANAK

OLASO industrialdea behea. Tel. 74 10 43 Faxa: 74 10 43

# JOSEBA OTAEGI

**Buruhandien taldekoa**

"Buruhaundi bezela umiak zirikatzen ibiltzen naiz baina gaur egun ez dia lehen beste bildurtzen. Bero haundixa pasatzen da buruhaundixen barruan, ahotik ikusten dozu eta albuetan zulo batzuk daude entzuteko. Hasieran nahiko gogorra da, ohitxu arte. Bizperia beste egunen antzerakua da, danak dia berdinak. Ni ez naiz oso juergazalia, gabian 2ak arte ibiltzen naiz beranduenez, oin arte behintzat. Nahixao dot egunez aprobetxatzia, sokamuturran ibiltzia gustatzen jata asko, zezenan aurretik. "








Nora begira zaudete? Zatozte lehenbailehen gida baimena ateratzera!

LARRANAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana 11 - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

Talleres ALBE ▼▼▼

KANPO ETA BARRUEN REKTIFIKATUAK - PLANEATUAK
CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA

Trenbide kalea, 21. Tel. 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)

Jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

# San Bartolome

## 24 larunbata

**9,30** Herriko DULTZAINEROekin DIANA.

**10,00** Udal TXISTULARI Taldearen DIANA.

**10,15** Udal Musika BANDAren kalejira.

**11,00** MEZA NAGUSIA, Udalbatza, Txistulari eta Parrokiako abesbatzarekin.

**Ondoren,** SOKA-DANTZA HARITZeko dantzariekin.

**Jarraian,** Udal Musika BANDAren kontzertua.

**17,00** ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Herriko Dultzaineroekin.

**18,00** Profesionalen ESKU-PILOTA partiduak Ikastolako frontoian.

**19,30** DANTZALDIA Plaza Handian ALMEN taldearekin.

**23,00** SUZKORROBERAK Lerunetik.

**Ondoren,** HERRIKO DULTZAINEROen saioa Plaza Handian.

**Jarraian,** ALMEN taldea PLAZA HANDIAN.

**23,30** MAIXA eta ITZIAR trikitilarien saioa MADALAko parkean.





TXENTXO

*SUZKORROBERAK*

*Donostiaraino joan beharrik ez dago gauaren iluna kolore biziz jantzita ikusteko. Aurten ere, ohi den bezala, izango ditugu Elgoibarren bertan suzkorroberak Astondoa etxearen eskutik. Ea gora begira jarri eta gozatu ederra hartzeko modukoak diren!*


**ROKE TABERNA**

- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Afari merkeak
- Pintxoak...

*Aurrez deituz gero, hobe!*

*Ondo pasa San Bartolomiak!*

**Erretxindi, 1 • Tel. 74 37 60 • ELGOIBAR**

**MIREN**
**arraindegia**



Santa Ana
74 34 49
**ELGOIBAR**



# INAKI GONI

**Atabalaria**



"Bizperan afaria egiten dot lagunekin eta San Bartolome egunian bixamona pasau eta goizian goiz jaikitzen naiz. Diania 9etan eukitzen dou eta egun guztia trajiakin egoten gera. Udal Korporaziuakin juten gera elizara, Meza nagusira, eta gero Aurreskua dantzatzen debe Haritzekuek. Egun astun xamarra da ze dana jarraixan izaten da eguerdira arte baina 20 urte daruat Udal Txistulari Bandan eta ohitxuta nao. Guretzat urteko aktuaziorik inportantienetarikua da. Txarangan egon nitzanian ilusio handia eitxen zian Txiki egunak, oin desmadre gehixegi da. Gainera, 15 urtekin askoz gogo gehixo dakazu golferiarako. Oin diferentia da."



TXENTXO



AZKUE

PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK
ALDAPA TABERNA
Ondo Pasa Sanbartolomiak
Santa Klara -22
☎ 74 26 32

imanole GOZOTEGIA
Jai Zoriontsuak!
San Frantzisko 44 - Tel. 74 41 37 - ELGOIBAR

OIERKI IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● **20600 EIBAR**

TXURI BELTZ
**Taberna**
**San Franzisko 38**

# Jubilatuen eguna

## 25 igandea

**8,00** IDIARENA Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren,** SOKAMUTURRA.

**12,30** Jubilatuei bereziki eskainitako MEZA parrokian.

**14,00** Anaiarteko BAZKARIA Kiroldegian GELATXOk alaituta.

**18,00** "Elgoibarko Hiria" FUTBOL TXAPELKETAko azken partidua Mintxetan.

**19,00** DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA Plaza Handian.

**22,30** DRINDOTS taldearekin DANTZALDIA Plaza Handian.

**5,30** TXOKOLATE JANA Madalan.



AZPILIKUETA



### TXOKOLATE JANA

*Gorputzari ondo baino hobeto eusteko eta Txiki egunera bitarteko tartea luzatu nahio duenarentzat, Txokolate jana izango da iaz bezala. Ogi egin berria hartu eta txokolate berotan bustitzeko asmotan hurreratuko da asko eta asko. Gaupasa egiteko aitzakia gozoa, ez?*


Mari Jose
GOZO-TOKIA
San Inazio, 1. ☎ 74 16 93
Zorionak txiki eta haundiei !

Tik-Tak
SO ONDO
PASA SAN
RTOLOME
JAIXAK!!
ELGOIBAR

ESAYDE S.L.
AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK
San Roke 30 behea - Tel. 74 38 09 - ELGOIBAR

Cordon,Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70



Iñaki Insausti

**Jubilatuen Etxeko lehendakaria**

"Neretzat egunik haundixena Txiki eguna da. Jubilauen eguna izaten da obligaziozko eguna, bastante nekosua. Goizetikan, korbata eta guzti mezetara jun bihar. Gero, eguerdian polideportibora juten geranian bazkaltzera, han egoten da erronka bat, danak nahi izaten debe batera sartzia... Eta han ere arpegixa jarri bihar piskat. Behin bazkaltzen hasi ezkero libre baina ordura arte... Dantzarik ez dot eitxen. Parrokuan onduan jarri eta begiratu, dana ikusi. Inori ez diot dantzia ematen ze bestela sokia luzia izango zan!".



TXENTXO



AZPILIKUETA


HERRI-GAIN ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4

(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Kkf g

ILEAPAINDEGIA

*Zorionak eta Jai zoriontsuak izan!*

☎ 74 00 69

San Frantzisko, 40 - 3 - B

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

Kalamua 12

ELGOIBAR

Tel-Fax:

74 18 91

URKIDI

AHOLKULARITZA

ASEGUROAK

# Haurren eguna



## 25 igandea

**11,00** Haurrentzako ZEZENTXO eta ZALDITXOAK Plaza Txikian.

**11,30** Marrazki Lehiaketarako IZEN-EMATEA Leku-Ederren.

**12,30** MARRAZKI LEHIAKETA Leku-Ederren.

**14,00** Umeen BAZKARI HERRIKOIA Leku-Ederren TRIKITILARI Eskolakoek alaituta.

**15,00** Haurrentzako JOLAS PARKEA Nafarroa Plazan. (Euria eginez gero, Ikastolan).

**17,00** BURUHANDI eta ERRALDOIen kalejira Herriko DULTZAINEROekin.

**18,00** Marrazki Lehiaketako SARI BANAKETA Leku-Ederren.

**18,30** MAUXITXA txarangarekin kalejira.

**Ondoren,** GOZOKI JAURTIKETA Kultur Etxetik.

**22,30** DRINDOTS taldea PLAZA HANDIAN.

**23,00** ZOKOAN eta LUTHER MADALAn.



*BAZKARI HERRIKOIA*

*Ogitartekoa etxean hartu eta Plaza Haundira! Han lagunartean euren eguna behar bezala ospatuko dute gaztetxoenek. Aurerrago, hauek izango dira Txiki egunean kuadrila elkartu eta demaseko juerga egingo dutenak!*













## Enara Gorostiza

"Umeen eguna da neri gehixen gustatzen jatana. Goizian kalera juten naiz ponyxak eta zezentxuak ikustera. Barrera atzetik ikusten ditxut batzuetan. Baina egun honetan gehixen gustatzen jatana marrazki lehiaketa da. Eurak esaten digutenari buruz eitxen dogu marrazkixa. Nik oindiok ez dot irabazi konkursua baina nere lehengusinak bai. Gero bokadiloa jaten dogu Coca-Coliakin. Barraketan ere ibiltzen naiz, autodetxokietan eta tiro pitxoian. Eta zezen mekanikuan. Karameluak ere hartzen ditxut; koltxonetako filetan jartzen naiz ze hara pilo bat botatzen dabe. Eta nik jaten ditxut danak".




San Bartolome jaixet... JO TA SUA!

RAIKS

KAFETEGIA
74 42 65

IPINTZA
Pinturak

- Pintura eta paperen salmenta
- Moketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- Gortinak saldu eta ipini
- Gortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4, ELGOIBAR. Tel . 74 04 40

# Txiki eguna





## 26 astelehena

**7,30** MAUXITXA txaranga eta Herriko DULTZAINEROen DIANA.

**Ondoren,** SOKAMUTURRA.

**Jarraian,** SALDA eta TXORIZOA.

**12,00** MAUXITXA txarangarekin KALEJIRA.

**17,00** ZEZEN enbolatuak Plaza Txikian.

**18,00** Profesionalen ESKU-PILOTA partiduak Ikastolako frontoian.

**18,00** Haurrentzat ZEZENTXO eta ZALDITXOAK Plaza Txikian.

**19,00** KOSKA taldea MADALAn.

**22,30** GELATXO PLAZA HANDIAN.

**23,00** KOSKA MADALAn.



*SOKAMUTURRA*

*Jaia gauez bizi dute askok gaur egun. Halere, sokamuturrarik gabe San Bartolomeak ez ziren gauza bera izango. Goizean goiz dultzaineroen eta Mauxitxaren dianaren ostean, Arnoren zezenekin jaiak dimentsio bereziak hartzen ditu. Korrikalarien eta etxeko leihotik begira ari direnen gozamenerako.*


ASESORIA GOIAR

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome, 1 • Tel. 74 26 74 / 02 32 • faxa: 74 21 29

ITZALA Edergintza

- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko 49, 1 esk. Tel. 74 43 03

UDABERRI ELGOIBAR

Ondo pasa Sanbartolomiak!







## BITTOR ZUBIAURRE

**Mauxitxa Txarangakoa**

"Txaranga barruan eta kanpoan oso diferente bizi izaten da egun hau. Txarangakoen artean jai moduko bat sortzen da, oso berezia, oso sakonetik bizi izaten duguna. Agian kanpotik ez da igartzen, baina barrutik, gure arteko jaiaz gain, kanpokoek bizi duten poztasuna ikusten duzu bai eta konpartitu ere; hortaz, doblea disfrutatzen da. Juergarik handiena ere egun honetako izaten da. Goizean zezenak ikusi, hamarretakoa egin, txarangarekin gero eta azkenik gorputzak aguantatzen duen arte".




Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR



MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAIA ETA REFLEXOTERAPIA

*Ondo pasa jaiak!*

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

# Baserritarren eguna



## 31 larunbata

**10,00** TRIKITILARI Eskolakoen kalejira.

**Ordu berean,** Euskadiko LIMOUSIN GANADU SARIKETAko ganadu erakusketa Plaza Txikian.

**10,00** SAGARDO DASTAKETA eta LEHIAKETA.

**12,00** Abeltzainei ONGI-ETORRIA Plaza Handian Haritz Dantzari Taldekoen eskutik.

**Ondoren,** Ziarda, Meabe eta Azpillaga BERTSOLARIEN JARDUNA Plaza Handian.

**14,00** BASERRITARREN BAZKARIA.

**17,00** TRIKITILARI ESKOLAKOen kalejira.

**18,00** Ziarda, Meabe eta Azpillagaren BERTSO SAIOA Plaza Handian.

**18,30** HERRI KIROL jaialdia Plazan.

**Ondoren,** ABELTZAINEI SARI BANAKETA.

**Jarraian,** GELATXO Plaza Handian.

**23,00** SUZKORROBERAK.

**Ondoren,** LEGAZPI taldea Plaza Handian.

**23,00** TRIKITIXA KONTRAIRO Madalan.



## 27 asteartea

**22,30** Aire libreko ZINEA Plaza Handian.

## 28 asteazkena

**22,30** Aire libreko ZINEA Plaza Handian.

## 29 osteguna

**14,30** BAZKARI HERRIOIA Madalan.

**Gauean,** ROCK KONTZERTUA Madalan.

**22,30** Aire libreko ZINEA Plaza Handian.

## 30 ostirala

**18,30** SASKIBALOI partidua Kiroldegian.

**23,00** DEF CON DOS taldearekin kontzertua MADALAko PARKEAn.












## IKER IZAGIRRE

**Panderojolea**

"13 urte nitxuanetik 17ra arte edo ibili nitzan kalejiran panderojole. Gero, lagunekin juergan ibiltzia nahixo eta laga ein naban. Oin, Baserritxarren eguna beste modu batera disfrutatzen dot, sagardo dastaketara jun, ferixia ikusi... Lehen, kalejiran egun guztia azkenian luzia eitxen zan eta abarkekin ibiltzera ohitxu gabe egoterakuan hankak babaz beteta amaitzen naban. Ostantzian, Txiki eguna da neretzat onena, egun horretan nere urtiak ere badia eta!".

IDAMA
ILEAPAINDEGIA
✖ MISTOA ✖ MAKILAIAK
✖ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
ESTETIKA
✖ DEPILAZIO HOTZA ETA BEROA ✖ SOLARIUMA
✖ MANIKURAK ✖ AURPEGI GARBIKETAK
Santa Ana 7. ☎ 74 40 26 ELGOIBAR

AGIRRE
HARATEGIA
Zorionak!
Santa Ana, 7. Elgoibar
☎ 74 05 97

GARATE
estankoa
Santa Ana 20 - ☎ 74 03 40

# Agur!


AZPILIKUETA

## 1 igandea

**7,30** IDIARENA Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren,** sokamuturra.

**Arratsalderarte,** LIMOUSIN GANADU ERAKUSKETA eta SALMENTA Plaza Txikian.

**22,30** Aire libreko ZINEA Plaza Handian.



*AGUR*

*Aurten ez dago, ez, jaiei bukaera emango dien ekintza berezirik. San Ferminetako "Pobre de mi"rik ez daukagu Elgoibarren. Eta uste baino lehen, konturatu ere egin gabe pasa dira 1996ko San Bartolomeak. Datorren urtean gehiago eta hobeak!*

ZUBACOR, S.L.
Ibaitarte kalea, 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66
Ondo pasa San Bartolomiak!
50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

ecenarro
- Bcttwmq gttqrcm
- Uoggpvl cv gttqrcm
Zorionak eta Ondo pasa jaiak!!
San Frantzisko 10,
Tel.: 74 26 19


MALAPE TABERNA
Disfruta ezazu herriko jaietan!



TXENTXO


**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

ELENA

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

*San Bartolome jai zoriontsuak!*

San Franzisko 49-1
Tel. 74 11 89
ELGOIBAR

Goki elRreformak, s.l

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
**20870 ELGOIBAR**

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

# ELGOIBARKO
# OSASUN GIDA

**PODOLOGOA**

- Iñaki Ribero ....................... San Bartolome, 28 .................... Tel.: 74 32 90

**ODONTOLOGIA**

- Gerardo Natenzon ........... Santa Ana, 20 ........................... Tel.: 74 36 35
- Agustin Sanchez ............. Antonio Arrillaga, 8 ................... Tel.: 74 37 47
- Antton Izagirre .................. San Frantzisko, 31 ................... Tel.: 74 19 52

**BIHOTZA ETA BIRIKAK**

- J. Etxeberria ..................... Santa Ana, 1 ............................. Tel.: 74 22 75

**MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA**

**NATUROPATIA**

- Kemen Belardenda
  Mari Sol Saez ................ San Bartolome, 25 .................... Tel.: 74 40 31

**REFLEXOTERAPIA PODALA**

- Kemen Belardenda
  Esther Zelaia ............... San Bartolome, 25 ................... Tel. : 74 40 31

**ATSak**

- Marta Diego Arrieta .......... Erretxindi, 2 .............................. Tel.: 74 02 33

